

BIXENTE BARANDIARAN (G.B.)

Bertsolari eta idazle errikoia (1917-1-24 / 2003-10-1)

Xabier

2003ko urrillak bat il zan Altzako errian 86 urte zituelarik Bixente Barandiaran Sarasola bertsolari eta idazle errikoia. Naiz ez oso ezaguna ez izan askorentzat, "Oarso" urtekarian lankide geranontzat lagun maitea genduan. Izan ere, 1989 urtetik 2000. urtera arte, ez ziran bertsoak faltatu izan Magdalena festa atarian bere osasunak lan ura egitia galerazi zion arte.

Argaitik, nere aurtengo lantxo au bere oorez eta goratarrez bezela eskeintzen diot, zergaitik bere bertsotan ain argi azaldu bai zituan "Oarso" eta Erreteria zenbateraño maite izandu zituan.

Eta ona emen zeatz meatz bere bizitzaren xeetasun batzuek jakiteko nolakoa izandu-zan-gure Bixente.

Bixente Barandiaran Sarasola 1917ko urtarrilaren 24an jaio zan Itsasondoko Goenazpi base-rrian, aita Benito eta ama Maria zituelarik; lau anai-arrebako sendia osaturik, ikasketak oinarrikokak, ezkondu eta Garbera baserria (Altza) egin zuan bizi leku, orain izen bereko eta lurretan dagoen Supermerkatua. Bere bizitzan lantegi-klase askotan

ibilli bear izan zuan bearrak eraginda: ikazkin, artzai, igeltsero, arotz, Beasaingo CAF piontzan. Azkenian Ramón Vizcaino lantegian jubilatatu zan arte.

Altzara bizitzera etorri zanian, bertsolari bezela ezezaguna zan eta ez zuan bertsotan aritze-ko aukerarik izan, naiz ta lagun artean bere saio-ak egin.

Etxeko giroak eraginda urbildu zan bertsogintzara, Bixente Amundarain bere lengusuak bultzatu zuan plazara, 1943an Itsasondon Santos Olazabal kantukide zuela egin zuan bere lenengo saioa. Bere azken kantuko saioa Santa Isabel egunean (2001?), Altzan-bertso-pare-bat egin zituan Lizaso eta Egañarekin.

Bere garaiko bertsolariak Angel Lujanbio (Sai-bururen semea) eta Santos Olazabal izandu zituan. Eredun, M. Lasarte, Basarri eta Joxe Agirre izan ziran bere gustokoenak. Gipuzkoako jubilatuen txapeldun izendatu zuten. Bat bateko sariketetan, Fernando Amezketarrarena (1985) Itsasondoko taldearekin.



k idatzitako liburuak eta *Auspoak* argitaratu gabe ezin bizi (*Auspoa* 209), *Tratu Auspoa* 267), *Trata bideak* (*Auspoa* 264) *kenduz* (Altzako istoria mintegia). Ona du, beraz, Bixenteri buruz niganatu dituz-

ere naia da Bixentek 1998tik 2000 (*Oarso*) aldizkarian lankide bezela bertso tzea, naiz urte tartetietan elkar gutxi gaixotasuna zala medio ez zuan izan oko *Oarsoko* kideak egiten dugun aparitere bertsoak garaiz iristen ziran.

lenengo lana *Agur Errenteri* 8 bertsokin du zuan eta bertan azaltzen du Errenterizandu zuan adiskidetasun eta maitasunaz gain, senideak ere bai zituan gure *Giroa* lanarekin izandu ziran 1990eko k, bertan igaro zan urteko *Oarsoren* apariko giroa eta gertakizunak umore onez isunez betiak.

an, *Andre Madalen* izenekoak izan ziran iriko bertsolari zarrak erabili zituan gai zan apaltzera etorri bere gaixotasuna-1992an, 1993an eta 1994an *Errenteria* a *Oarsorako* egiten dituan lan gustora la azaltzen ditu beste urte auetan.


ean, urteroko lan onetan, bere bizitza-ruak azaltzen ditu eta 1996an *Oarsoren* ren bidez izan ziraden bere bertsoak.

1997an bere gaixotasuna artzen du gai bezela eta bere penak azaltzen ditu gure artean ezin izan dala-ko. *Bertsoak* idatziko ditu 1998an munduko gora berak gai arturik. Urte ontan il zan Migel Pelay Orozkori iru bertso eskeintzen dizka gogorapen bezela. Onela dio batek:

Momentu ontan gogoan daukat
gurea dan Migel Pelai,
bere omenez bertso pare bat
jarri nai dizkiot berai.
Oarso gaitik ain bat lan egin
ta Amulletan ere bai.
Olako gizonak ez dirade
lñoiz aztutzen nola nai.

1999an, 16 bertsoko saioan garaiko gora berak jorratzen ditu eta baita ere bere gazte denborako bizitza modukoak oraingo aurrepenak gaberik sagardotegi eta abar eta urte au aukeratuaz osasun eskasari atsedena emanaz Benidor aldera joatea erabakitzen du bertako klimak on egingo diolakuan, bañan an egon arren ez dala Errenteriataz aztuko Madalen jaietan.

2000an, bere 16 bertsoko saioan urte artan ildako Basarri bertsolari ospetsuaren oorez egiñak izandu ziran, oso ezaguna eta maitatua ta gaiñera bere eredu lanari bertso unkiarriak eskeintzen dizka. Auek izandu ziran urteetan zear *Oarso* urtekarian azal dutako Bixenteren azken bertsoak.





Ondoren bere berririk ez genquen izan, naiz eta jakin osasunez ez zebillela ondo, bañan 2003ko urrillak 1ean bere azken arnasa Altzan eman zuelaren berri samiña iritsi zitzaigun.

Bere illetara urrillaren 3an joaterik ez nuban izan Donostiako Hospitalean gaixorik arkitzen bainintzan, bañan bertako berriak izandu nituan; Txomin Garmendia bertsolari eta kazetariak *Diario Vasco* egunkariko euskal atalean eginkizunaren dato batzuek azaltzen zituan. Jendetza ugari eta Zeberio bertsolariak bere bertso ofrenda egin zuala adieraziz, baita ere Begoña del Teso idazle eta kritikoak, Bixente asko ezagutu zuela, oso ondo azaldu zuan bere kronika batean bere ekintzak eta lanak goraiatuz.

Eta ona emen nere lantxoan al detan ondoen bete izanik zueri Bixente zanaren omenez egiña. Bertsolari errikoia jende aurrean aritzea atsegin ez zitzaiona bañan bai lagun artean eta laguntzarako bere idaz lanak azaldu izan zituan, apal, umoretsu eta buru argikoa. Itz batian esateko: euskaldun peto petoa.

Denbora gutxian ezagutu nuen Bixente zana bañan denbora ortan ikusi eta pentsatu nuan Euskal Errikosemeen artean beti leku berezi eta kutun bat izango duela bere bizitzan bere alde ain bat lan egin ondoren.

Eta azkenik, nere esker ona azaldu nai diotet Xenpelar Dokumentazio Zentroari eta Erriko Udal Argitegiari lan ontan erabili dituan datuak arkitzeko eman didaten laguntza eta erreztasunagaitik.

Jaio ziñaden Antzuolako
Goenazpi baserrian
Eta lanean jardun ziñaden
Zure bizitza guztian.
Bertsotan eta idatz lanetan
Gogotsu aritu ziñan,
Mundu au utzi ta egongo zera
Jaungoikoaren albu
Ala dedilla opatzen dizut
BIXENTE BARANDIARAN

(Xabier)
2004-4-1